

Euskotrenen xedea hiriko eta hiriarteko mugikortasun jasagarria bultzatzea da, pertsonak segurtasun-, erosotasun- eta puntualtasun-baldintza onenetan mugiaraziz, ekoeraginkortasun-irizpideekin eta gure inguruneke bizi-kalitatea hobetzen lagunduz, enpresaren interesak erabiltzaileen balioekin lerrokatuz, interes publikoa barneratuz.

Euskotrenek Laneko Segurtasun eta Osasunaren (LSO) arloan duen ikuspegia, Gobernu Arduratsuaren Politikatik abiatuta, gure jarduera modu seguru eta osasungarrian garatzeko beharrezkoak diren lan-baldintzak ematean datza, bai Euskotreneko langileentzat, bai interes-taldeentzat eta enpresa hornitzaile eta kontratistentzat.

Politika horrek LSOren arloko helburuak eta jomugak ezartzeko eta berrikusteko erreferentzia-esparrua ematen du, eta, horren bidez, Euskotrenek Erakunde osoaren konpromisoa adierazten du:

- Gure jardueraren segurtasun- eta osasun-arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea, aldaketetatik eta aldatzetik sortzen direnak barne, horiek desagerrarazteko, eta, ezinezkoa bada, minimizatzeke eta kontrolatzeko, zero istripuko politikaren barruan.
- Gure jarduerari aplikatzen zaizkion laneko segurtasun eta osasunaren arloko legezko baldintzak betetzea, bai eta Erakundeak arlo horretan sinatzen dituen borondatezko baldintzak ere.
- LSOren kudeaketaren eta jardueraren etengabeko hobekuntza sustatzea, eta erakundearen jarduera eta erabaki guztietan segurtasun- eta osasun-irizpideak txertatzea.
- Euskotreneko eta gure enpresa kontratistetako langile guztiak informatzea, prestatzea eta sentsibilizatzea, gure jarduerari lotutako segurtasun- eta osasun-arriskuei buruz, bai eta lana modu seguru eta osasungarrian garatzeko betebeharrei eta erantzukizunei buruz ere.
- Erakundeko langileen komunikazioa, kontsulta eta parte-hartzea sustatzea segurtasunari eta osasunari eragiten dieten gaietan.
- LSOrekin politika honekin hartutako konpromisoa betetzeko beharrezkoak diren baliabideak eta/edo tresnak ematea.

Laneko Segurtasun eta Osasun Politika publikoa da, eta aldian-aldian berrikusten da, egokitu eta, hala badagokio, aldatzeko. Euskotrenek hori betetzea sustatuko du, maila guztietan zabalduz.

2025eko otsailaren 18a

Zuzendari Nagusia

